

## Arabako Campuseko Baratza ekologikoan (HaziCampusa) egindako irakaskuntza-jarduera

Ikasgaia	Lauhilabetekoa	Ikasle kopurua
Analisi geografikoa 2025-2026	1	38
	<b>Irakasleak</b>	
	Amaia Albizua Aguinaco	
<b>Ekintzaren izenburua</b>		
Lurzoruen kalitatea neurtzen		
<b>Helburua(k)</b>		
Ikasgelan emandako oinarrizko kontzeptuetan modu praktikoan sakontzea (zer da lurzoru bat, zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak). Horretarako adierazleak ematen diguten lurzoruaren kalitate-baldintzen berri neurtu genituen.		
<b>Metodologia eta Praktikaren garapena</b>		
<p>Zuazagoitia et al., (2021)-ean oinarrituta, teoria bi klase prestatu nituen, lurzoruaren kontzeptua, bere ezaugarriak, ematen diren prozesuak, formaziorako etapak eta kalitate adierazleak ulertzeko. CEAko jenderekin elkartu nintzen materiala jasotzeko ta baratzara eramateko. Galdetegi pasatu nien haien aurre ideiak identifikatzeko. Haiek erantzun ta marrazki egin zuten. Ostean teoria azaldu nuen.</p> <p>kontzeptu hauek hobeto finkatzeko landa irteera bat egin genuen, lurzoruaren kalitate neurtzeko asmoarekin. Adierazle hauek nertu genituen: Uzten biodibertsitatea; Beste landarien aniztasuna; Makrofaunaren aniztasuna; Egoera biologikoa (zizareak); Egoera fisikoa (infiltrazioa); Egoera fisikoa (kompaktazioa); Egoera kimikoa (azidotetasuna / basikotasuna; Egoera kimikoa (kutsatzaileak / pestizidak erabiltzea); Egoera kimikoa (materia organikoa); Materia organikoaren edukia; Ekoizpen-sistema (karbonoa irabazten edo galtzen du?)</p> <p>Klasea 2 taldetan banatu nuen eta 2 egun joan ginen ortura.</p> <p>Han, 4 pertsonako taldetan lan egin zuten ta aipatutako adierazleak neurtu zituen.</p> <p>Landa fitxa bete zuten ta nik bidali nion CEA-ri beraien herritarren zientzia programa kontutan hartzeko. Hau guztia egin ostean, beste galdetegi bat bete zuten. Klasean bi galdetegien arteko aldeak komentatu genituen ikasitakoa ohartzeko asmoarekin. Lurzoruen inguruko sailkapenak teorikoki azaldu nituen ta beste ariketa praktiko bat egin zuten non, geoEuskadi-ren bisorea erabiliz, lurzoruaren porositatea eta poluituta egon daitezkeen lurzoruen mapa aztertu eta udalerrri batean aurkitutako informazioa erlazionatu eta deskribatu behar zuten. Ariketa hau aukeratutako udalerrri baten azterketa geografikoko lan handiago baten parte da, eta ikasle-talde berdinek garatu dituzte (Argazkiak txertatu ahal dira)</p>		
<b>Praktikaren plangintza</b>		
(datak eta iraupena)		
Urriaren 20an 14:00-16:00		
Urriaren 21ean 14:00-16:00		